

ASOCIACIÓN ESPAÑA CON ACNUR erakundeak (G80757560) dirulaguntza eskatu dio Zarauzko Udalari Hego Sudanera laguntza humanitarioa bidaltzeko.

Nazio Batuen Erakundearen arabera, 2023ko apiriletik Sudaneko gatazka armatuak eragindako krisiak 14 milioi pertsona desplazatu baino gehiago eragin ditu, eta horietatik 1,2 milioi Hego Sudanen babestu dira, herrialde hori Sudango errefuxiatuen hartzaile nagusia bihurtuz.

Larrialdi hau handia izan arren, ez du ikusgarritasun handirik eta apenas ari da jarraipen mediatikoa izaten, eta horrek are larriagoa egiten du baliabideen falta.

ACNUR tokian bertan ari da larrialdiari erantzuten, larrialdiko oinarritzko artikuluak banatzen, hala nola mantak, bidoiak, sukaldeko kitak, eltxo-sareak, esterillak eta eguzki-lanparak, lekualdatutako pertsonen higieena, segurtasuna eta duintasuna hobetzeko. Eta horretarako premiazko laguntza behar dute.

Ekimen horren ezaugarriak kontuan hartuta, ASOCIACIÓN ESPAÑA CON ACNUR erakundearen eskaerak bat egiten du GIZARTE ZERBITZUETAKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRI ESPEZIFIKOetan jarritako baldintzekin (Zarauzko Udalbatzarrak 2024ko urtarrilaren 25eko osoko bilkuran onartu zituen).

Oinarri horien arabera, eta laguntza mota hauen ezaugarri bereziak kontuan izanda, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legeak 22.2c artikuluan xedatutakoaren arabera emango dira laguntzak, aurrekontuetan jarritako kreditua bukatzen den arte.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legeak 22.2 artikuluan esaten du hainbat dirulaguntza zuzenean eman daitezkeela. 22.2c) atalean jasotzen denez, salbuespen gisa, beste dirulaguntza batzuk eman ahal izango dira, baldin eta egiaztatzen bada interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioko arrazoiak daudela –edo behar bezala justifikatutako beste arrazoi batzuk– deialdi publikoa egitea zailtzen dutenak.

Kasu honetan, argi dago ekimen hori udal interesekoa dela, arrazoi humanitarioak direla-eta. Halaber, goian aipatutako xedea betetzen duen bakarra ASOCIACIÓN ESPAÑA CON ACNUR erakundea da, eta horrek zaildu egiten du deialdi publiko bidez ematea xede horretarako dirulaguntza.

Hori guztia kontuan hartuta, Gizarte Zerbitzuetako teknikariaren eta kontu-hartzailearen txostenak ikusita, eta Gizarte Politikako zinegotziak hala proposatuta, honako hau **ERABAKITZEN DUT**:

Lehena.- ASOCIACIÓN ESPAÑA CON ACNUR erakundeari 10.000,00 euroko dirulaguntza ematea, Hego Sudanera bidali beharreko laguntza humanitarioa finantzatzen laguntzeko.

Bigarrenen.- Dirulaguntza hori azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 22.2c) artikuluan ezarritakoaren arabera ematea, aurrekontu-partida honen kontura: 0501 481 02 231 81 2025.

Hirugarrenen.- Dekretua sinatutakoan, ASOCIACIÓN ESPAÑA CON ACNUR erakundeari 7.000,00 euro ordaintzea (laguntzaren % 70).

Laugarrenen.- Eskatutako informazioa DIRULAGUNTZEN DATU-BASE NAZIONALEAN (BDNS) erregistratzea, hark emandako bitarteko elektronikoen bidez, kontzesioaren testuarekin, haren laburpenarekin eta datu egituratuekin batera.

Bosgarrenen.- Dirulaguntza honako puntu hauek arautuko dute:

1.- Xedea

ASOCIACIÓN ESPAÑA CON ACNUR erakundeari 10.000,00 euroko dirulaguntza ematea, Hego Sudanera bidali beharreko laguntza humanitarioa finantzatzeko laguntzeko.

2.- ASOCIACIÓN ESPAÑA CON ACNUR erakundearen betebeharrak.

- Dirulaguntzaren erabilera justifikatu.
- Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarenak beteta eta egunean dituela egiaztatu. Betebehar horiek betetzen direla egiaztatu ahal izateko, baimena emango dio Zarauzko Udalari horrek bere aldetik erakunde eskudunei informazioa eskatzeko.

3.- Diruz laguntzeko gastuak

Dirulaguntza honen xedean deskribatutako jarduerak egiteko gastuak ordainduko dira.

4.- Organo eskuduna

Zarauzko Udaleko Immigrazio eta kultur aniztasunerako teknikaria izango da dirulaguntza honen organo kudeatzailea.

5.- Bateragarritasuna beste dirulaguntza batzuekin

Dirulaguntza hau bateragarria da onuradunek lortzen dituzten beste laguntza batzuekin. Deialdi honen bidez lortutako dirulaguntzak –bakarrik edo beste dirulaguntza, laguntza, sarrera, eta errekurso batzuekin batera– ezingo du inola ere gainditu erakunde onuradunak egin beharreko jardueraren kostua.

6.- Ordaintzeko modua

Dirulaguntza bi zatitan ordainduko da: % 70 dekretua sinatutakoan, eta gainerako % 30a, emandako dirulaguntzaren erabileraren justifikazioa aurkeztu ondoren.

7.- Justifikazioa aurkezteko epea eta modua

Dirulaguntzaren erabileraren justifikazioa 2026ko abenduaren 31 baino lehen aurkeztu beharko da.

Funtsak justifikatzeko, dokumentazio hau aurkeztuko da:

- Behin betiko txosten teknikoa.
- Erakunde eskatzaileak emandako ziurtagiria, proiektua osorik gauzatu dela eta helburuak lortu direla egiaztatzen duena.
- Jasotako dirulaguntzaren ziurtagiria, erakunde eskatzailearen finantza-zuzendariak sinatua, funtsak zer proiektutarako erabiliko diren zehaztuta.

- Dirulaguntza ordaindu ondoren "España con ACNUR" erakundeak egindako faktura.
- Erakunde eskatzaileak emandako ziurtagiria, funtsak jasotzeari eta aplikatutako kanbio-tasari buruzkoa.
- Funtsak tokiko beste alderdiari (UNHCR/ACNUR) bidali zaizkiola egiaztatzen duen dokumentazioa:
 - a) Dirulaguntza erakunde eskatzailearen kontuan sartu izanaren kopia.
 - b) Erakunde eskatzaileak tokiko kontraparteari (UNHCR/ACNUR) egindako banku-transferentziaren kopia.
 - c) erakunde eskatzaileak emandako ziurtagiria, tokiko beste alderdiari (UNHCR/ACNUR) egindako banku-transferentziaren banakapenari buruzkoa.
 - d) entitate eskatzaileak emandako ziurtagiria, erakunde eskatzailearen kontuan tokiko kontraparteari (UNHCR/ACNUR) transferitu aurretik gordetako denboran emandako funtsen gastu eta interesik ez dagoela egiaztatzen duena.
- Tokiko beste aldeak (UNHCR/ACNUR) funtsak/ordainagiria jaso izana egiaztatzen duen dokumentazioa.

8.- Berme erregimena

Dirulaguntza ordaintzeko ez da derrigorrezkoa izango bermerik jartzea.

9.- Publizitatea

Diruz lagundutako jarduerak dibulgatu, zabaltu edo, kasuan kasu, horien publizitatea egin behar bada, ASOCIACIÓN ESPAÑA CON ACNUR erakundeak espresuki adieraziko du Zarauzko Udalaren lankidetzat. Horretarako, Zarauzko Udalaren logotipoa argi ikusteko moduan jarriko du, edo, bestela, espresuki aipatuko du babes hori.

10.- Itzulera-kausak

Akordio honetako itzulera kausak izango dira:

- Dirulaguntza akordio honetan ezarritako xederako ez beste baterako erabiltzea.
- Erakunde onuraduna desagitea.
- Akordio honetan jarritako baldintzak ez betetzea.

11.- Araudia

ASOCIACIÓN ESPAÑA CON ACNUR erakundeak kasu bakoitzean aplikagarriak diren udal ordenantzak bete beharko ditu, baita gai bakoitzarekin lotuta indarrean dagoen legedia ere, eta, batez ere, honako hauek:

- 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorra, eta gai horrekin lotutako udal ordenantzak.
- 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, Dirulaguntzen Lege Orokorraren Arautegia.
- 3/2018 Legea, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa.
- 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerakoa.
